

## Nafarroako Liburutegirako aurrekontua onartu dute

Alberto Barandiaran. Iruñea

Nafarroako Gobernuak 28,6 milioi euroko aurrekontua onartu du Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka gordeko dituen eraikina altxatzeko, eta aurten, esaterako, zazpi milioi euroko diru saila gorde du horretarako. Kultura departamentuak aurreikusitakoaren arabera, lanak aurten hasiko dira, eta 2010. urtean amaituko.

Eraikina Iruñeko Mendebaldea auzoan eraikiko dute, eta 20.000 metro koadro izango ditu denera. Ondoan, Nafarroako Kontsebatorio Nagusia eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitza berria daude aurreikusita. Bi eraikin horietarako diru sailik edo aurreikuspenik, hala ere, ez du egin oraindik Nafarroako Gobernuak.

LAU SOLAIRU. Liburutegiaren proiektua Manuel Ferrer Sala arkitektoarena da, eta lau solairu izango ditu. Beheko solairuan ehun mila liburuko funtsak egongo dira eskuragai, eta Internet kontsultatzeko tokiak, ikus-entzunezkoak, hemeroteka eta haurrentzako gela paratuko dituzte.

Lehen solairuan irakurketa eta ikerketarako guneak jarriko dituzte. Funts espezializatuak eta agerkariak egongo dira bertan, eta, ondoan, Nafarroako Filmoteka. Bigarren solairuan, erabilera mugatuko gelak egongo dira.

Nafarroako ondare bibliografikoko ikerketa gelak bertan egongo dira, eta Liburutegia Nagusiaren eta gainerako liburutegi guztien kudaketa zerbitzuak ere bai. Sotoan, berriz, liburutegien sarearen kudeaketarako zerbitzuak egongo dira.

Liburutegiak milioi bat dokumentu gordetzeko gaitasuna izango du.